



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

211. INFORMAZIO BULETINA

2025eko IRAILA



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea



ALBISTEAK

Ibai-ibilguak lehengoratzeko hainbat obra abian.


Proiektuak Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundia ibaiak lehengoratzeko obra batzuk exekutatzen ari da, 2020-2035 aldirako Oztopoak Iragazkortzeko Plan Zuzentzailean jasotakoak.

Zehazki, 2025ean oztopoak eraisteko obrak egingo dira Oria ibaian (Tolosa), Salubita errekan (Tolosa), Altzolarats errekan (Aia/Zestoa) eta Oñati ibaian (Bergara, Arrasate eta Oñati).

Hauetako obra batzuk:


- Arrapala Bentaundi presan, Oria ibaian (Tolosa)





2025eko IRAILA

- Itavex presa txikia eraistea Oñati ibaiaren bokalean (Bergara, Arrasate eta Oñati)



- Granadaerreka presa txiki eraistea Altzolarats ibaian (Aia-Zestoa)



2025eko IRAILA

Obren inbertsioa, guztira, 233.626,19 euroko da.

Jarduera horiek guztiak Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko ditu, 2.7 helburu espezifikoarekin: "natura, biodibertsitatea eta azpiegitura berdeak babestea eta sustatzea, baita hiri-eremuetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea".

Informazio gehiago:

Informazio publikoan dauden proiektuak

Ibaiak lehengoratzeko lanak_Mapa

Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatea birgaitzeko obrak lizitatu dira.

Proiektu hau, Europar Batasunak finantzatzen du (Next Generation funtsak), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) bidez.

Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren proiektu honen helburua Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko eraikinaren kanpoko zein klaustruko fatxadak zaharberritzea eta estalkia birgaitzea da.

Eraikina nahiko ondo kontserbatuta dago. Ez da egiturazko arazorik ikusten, baina fatxada historikoei (kanpoaldekoiei eta klaustrukoiei) esku hartu behar zaie; izan ere, patologia ugari dituzte, denboraren joanak, hezetasunaren presentzia etengabeak eta pilatutako zikinkeriak eraginda. Patologia horiei tximista batek eragindako kalteak gehitu zaizkie berriki.

Oñatiko Hirigune Historikoaren Monumentu Multzoan dagoen Kultura Intereseko Ondasun bezala deklaraturik dago, banakako babes bereziarekin.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 2.084.765,22 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025ko irailaren 26an amaituko da.

Proiektu hau Europar Batasunak finantzatzen du (Next Generation funtsak), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) bidez. Zehazki, plan horren 14. osagaiaren barruan (4. inbertsioa), "Jarduera bereziak lehiakortasunaren arloan".

Informazio gehiago: ***Kontratazio Plataforma***

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta foru sektore publikoko beste erakunde batzuen kontratazio espedienteen kudeaketa integralerako soluzio informatikoari buruzko kontratua lizitatu da.

Proiektu hori Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko du.

IzfeK (Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea) lizitatu du kontratua, eta haren jarduera nagusia da zerbitzu informatikoak ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, foru sektore publikoa osatzen duten erakundeei eta hala eskatzen duten Gipuzkoako Lurralde Historikoko beste toki erakunde batzuei.



2025eko IRAILA

Gaur egun, kontratazio-espedienteak kudeatzeak, administrazio-karga handia dakar, eta indarrean dagoen araudia zorrotz betetzea eta prozesuaren fase guztietan dokumentu-trazabilitate osoa izatea eskatzen du.

Kontratazio publikoaren prozesuak hainbat fase eta izapide eskatzen ditu, eta horiek zorrotz bete behar dira legezkotasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzeko.

Gaur egun, kontratuen lizitazioa modu elektronikoa egiten da, baina gainerako prozedura eskuz edo erdi automatizatuta egiten da.

Egun dauden arazoei aurre egiteko aplikatu daitezkeen irtenbideak aztertu ondoren, ondorioz onena da kontratazio-espedienteak kudeatzeko sistema integral bat ezartzea, kontratu-bizitzaren zikloaren ondoriozko jardura guztiak automatizatu, zentralizatu eta kontrolatuko dituen. Horixe da kontratu honen xedea.

Kontratuaren balio zenbatetsia 1.308.818 eurokoa da (BEZik gabe), eta eskaintzak aurkezteko epea 2025eko urriaren 17an amaituko da.

Esku-hartzea Euskadiko EGEF Programaren 1. Helburu Politikoaren barruan kokatzen da: Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa; Helburu espezifikoaren barruan: 1.2. Digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat.

Informazio gehiago: [Kontratazio Plataforma](#)

Europako Funtsen Urteko Ekitaldia #EuropaSentitzenDa 2025.

Ekitaldia urriaren 8tik 10era egingo da Santa Coloma de Gramenet herrian.

Europako Funtsen Urteko Ekitaldia, Ogasun Ministerioaren Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiak antolatua, urtean behin Espainiako funts europarren kudeatzaileen komunitatea biltzen duen ekitaldi nagusia da. Bertan proiekturik onenak hautatu, erakutsi eta bozkatzen dira, Europako funtsen onurak ikusarazten dira eta jardunbide egokiak partekatzen dira.

Jardunaldietan, Europak finantzaturako proiektuetara bisita gidatuak egingo dira, Europako funtsen komunikazio-sare nazionalaren bosgarren osoko bilkura egingo da eta Europa herritarrei hurbiltzeko jarduerak antolatuko dira.

#EuropaSeSiente Europako funtsen **proiektuen lehiaketaren** finala eta sari-banaketa izango da plater nagusia. Lehiaketaren helburua da herritarrek Espainiako funts europarren emaitzei eta balio erantsiari buruz duten kontzientziazioa ikusaraztea eta areagotzea. Aurtengo berrikuntza nagusi gisa, ekitaldiak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) proiektuen parte-hartzea ere barne hartuko du.

Bertaraterik ez badago, **streaming** bidez ere jarraitu ahal izango da zuzenean.

Informazio gehiago: [ekitaldiaren webgunea](#) (gaztelaniaz)

EUROPAKO DEIALDIAK

NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, turismo-arloko laguntzak emateko oinarriak eta deialdiak arautzen dituzten ministerio-aginduak aldatzea, Industria eta Turismo Ministerioaren egiturara egokitzeko. [**Informazio gehiago.**](#)

Uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak egiteko dirulaguntzen hirugarren deialdiaren behin-behineko ebazpena (PERTE, uraren zikloaren digitalizazioa), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. [**Informazio gehiago.**](#)

Ebazpena, 2025eko abuztuaren 12koa, Hezkuntzako Estatu Idazkaritzarena, 2025eko uztailaren 31ko Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, 2021eko uztailaren 21eko Erabakia aldatzen da. Erabaki horren bidez, 2021eko aurrekontu-ekitaldian hezkuntza-sistema digitalizatzeko programara bideratutako autonomia-erkidegoek kudeatutako kredituak banatzeko lurralde-banaketaren proposamena eta irizpideak onartzen dira, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren «Ahalmen Digitalen Plan Nazionala» 19. osagaiaren esparruan. *Gauzatzeko, justifikatzeko eta egiaztatzeko epeak aldatzen ditu.* [**Informazio gehiago.**](#)

Ebazpena, 2025eko abuztuaren 12koa, Hezkuntzako Estatu Idazkaritzarena, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren 2025eko uztailaren 31ko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horrek 2021eko azaroaren 25eko Erabakia aldatzen du. Akordio horren bidez, Haur Hezkuntzako lehen zikloan eskolatzea bultzatzeko programarako kredituen lurralde-banaketaren proposamena onartu zen, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren 21. osagaiaren esparruan. *Gauzatzeko, justifikatzeko eta egiaztatzeko epeak aldatzen ditu.* [**Informazio gehiago.**](#)

[**“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea**](#)